BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3622

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 19koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinen bidez erabakitzen baita Abadiano-Azpeitia 1 eta Ormaiztegi-Abadiano 1 (Gipuzkoa) lineen arteko Arrasate TA airetiko 132 kV-ko lineako zuhaitzak botatzeko eta zortasunak egokitzeko proiektuaren ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurari ez ekitea. Proiektua Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. enpresak sustatzen du.

2012ko martxoaren 7an, Eusko Jaurlaritzaren Energia eta Meategien Zuzendaritzak Abadiano-Azpeitia 1 eta Ormaiztegi-Abadiano 1 (Gipuzkoa) herrien arteko Arrasate TA airetiko 132 KV-ko lineako zuhaitzak botatzeko eta zortasunak egokitzeko proiektuaren ingurumen arloko dokumentua igorri zion Ingurumen Sailburuordetzari (proiektua Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. enpresak sustatzen du), ingurumen-organoak ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura bete behar duen erabaki zezan.

Proiektuaren helburua da goi-tentsioko linea elektrikoak zuhaitz-eremuetatik igarotzeko bete behar diren agindu espezifikoek ezarritakora egokitzea.

Ez da inola ere aldatuko linearen traza, ez eta gurutzamenduen ezaugarriak ere. Mozketak 20 metroko zerrenda batean egingo dira, linearen ardatzaren bi aldeetan.

2012ko martxoaren 19an, ingurumen-organoak zabaltze-proiektuaren aldaketak eragiten dien administrazio eta erakundeei berariaz galdetu zien aipatutako jarduketen ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurari ekiteko beharraz, eta, hala balegokio, ingurumen-eraginaren azterketak izan beharreko edukiez eta gutxieneko irismenaz, Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontsulta egin zitzaien Eusko Jaurlaritzako organo hauei: Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza, Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza. Kontsulta egin zitzaien, orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo hauei: Ingurumen eta Lan Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia, Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia, Bide Azpiegituretarako Zuzendaritza Nagusia eta Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Gainera, Uraren Euskal Agentzia ere galdetu zitzaion, eta IHOBE, S.A., Ingurumen Jarduketako Sozietate Publikoari eta Bergara, Arrasate eta Oñatiko udalei ere bai.

Erantzun dute Kultur Ondarearen Zuzendaritzak, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eta Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendariordetzak, –guztiak ere Eusko Jaurlaritzakoak–, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta IHOBE, S.A., Ingurumen Jarduketako Sozietate Publikoak ere.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du bere artxiboetan ez dagoela jasota kultura intereseko elementurik dagoenik proiektuaren eragin-eremuan.

Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak nekazaritzako sektorearen gaineko eragina eta hartu beharreko neurri zuzentzaileen proposamena ebaluatzeko gomendatu du, ingurumeneko alderdiei bestelako aipamenik egin gabe.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak proiektuak biodibertsitatearen gainean duen eragina aztertu du txostenean, eta neurri batzuk adierazi ditu proiektuak ingurumenean eta biodibertsitatean izango dituen eraginak eragozteko eta/edo arintzeko.

Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendariordetzak jakinarazi duenez, arreta-neurri bezala eremu elektriko eta magnetikoen mailak kontuan hartu behar dira, nahiz eta proiektuak nabarmen handituko ez dituen.

IHOBEk jakinarazi duenez, proiektua egingo den lekuan betidanik izan dira erabilera industrialak izan dituzten partzelak, eta erabilera horiek agian eragin dute lurzorua kutsatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak bere txostenean adierazi duenez, ez zaio zuzenean eragin inongo aztarnategiri, eta ez da leku egokia artarnategi arkeologikorik agertzeko.

Proiektuak ingurumenean izan dezakeen eragina neurtzeko, eskura dagoen informazioa aztertu da. Azterketa hori egiteko, Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideei heldu zaie. Azterketaren emaitza honako hau izan da:

Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektuaren helburua hauxe da: goi-tentsioko airetiko linea elektrikoak zuhaitz-eremuetatik igarotzeko bete behar diren agindu espezifikoak betetzea. Horretarako, distantziak instalazioaren segurtasunerako behar bestekoak ez diren lekuetan, zuhaitzak botako dira. Mozketak 20 metroko zerrenda batean egingo dira, linearen ardatzaren bi aldeetan.

Ebazpen honen xede den zuhaitz-botatzea egingo den linea hiru faseko korronte alternokoa da, 132 kV-ko tentsio izenduna duena, eta Arrasate TA Abadiano-Azpeitia 1-eko 132 kV-ko linearekin (6,602 km) eta Ormaiztegi-Abadiano 1 linearekin (5,541 km) lotzen du. Beraz, 12,143 km ditu esku hartu beharreko lineak.

Zuhaitz-zerrenda sendotzeko, linearen trazatua ez da aldatu behar, ez eta gurutzamenduen ezaugarriak ere.

Arrasate-Mondragón, Oñati eta Bergarako udalerrietan kokatuta dago azterlana (16 bat km^2).

Sustatzaileak bidalitako informazioaren arabera, zuhaitzak botako diren zuhaitzetako eremuak, baso-berritzekoak eta autoktonoak 23,12 ha inguru dira, kontuan harturik segurtasun-kaleak gutxi gorabehera 27,85 ha-koak direla. Adierazitako azalerak kalearen zabalera osoari dagozkio, ez bakarrik kalearen handitzeari. Hori dela eta, horren barruan sartuta dago bai deforestatutako azalera, bai proiektu honen ondorioz zuhaitzak bota behar diren azalera berria.

Proiektuaren eragina izango duen azalerari dagokionez, sustatzaileak emandako datuetatik ondoriozta daiteke proiektuaren eragina izango duen azalera 5-10 hektareakoa dela, eta ez dela otsailaren 27ko 3/1998 Legean eta urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan adierazitako atalaseetara iritsiko; hau da, proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren banako ebaluazioa egiteko prozedura bete behar izateko atalasera.

Badira beste alderdi batzuk kontuan hartu beharrekoak, esaterako, beste proiektu batzuekiko ondorio metagarriak (gaur egun, 132 kV-ko Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2 linea elektrikoko zuhaitzak botatzeko eta zortasunak egokitzeko proiektuaren ingurumen-eraginaren ebaluazioa izapidetzen ari da). Alderdi horiei dagokienez, ez dira bereziki aipagarriak baliabide naturalen erabilera, hondakinen sorrera, kutsadura eta istripu-arriskua. Hori dela eta, proiektuak ez du pasa behar ingurumenaren gaineko eraginaren banako ebaluazioa egiteko prozedura.

Proiektuaren kokapena.

Proiektua ez da inongo espazio natural katalogaturi, ez eta babesturi buruzkoa ere.

Zuhaitza bota litezkeen eremuaren azaleraren % 92,47 basoek betetzen dute, batez ere Pinus generokoek. Zuhaitzak botako diren eremuaren gainerako azalera (% 7,53) formazio hostotsuek betetzen dute; gehienez ere 1,74 ha-ko azalera izan dezake eragin-aldeak, formazio hostotsuen kasuan.

Proiektuak eragindako baso autoktonoen artean, Alnus Glutinosa eta Fraxinus excelsiorreko baso alubialak 91E0* lehentasunezko interesa duen habitatean izandako eragina azpimarratu behar da. Habitataren azalera: 199,15 m^2; Angiozar errekaren inguruan dago; eta linea horrek zeharkatzen du. Bidalitako dokumentazioaren arabera, linea elektronikoaren azpian dagoen eremuan, haltzadiak haltz lerro bakarra du eta linea zuhaitzak baino askoz ere gorago dago. Hori dela eta, hor ez da zuhaitzik bota beharko.

Proiektuak beste habitat batean ere izango du eragina: interes komunitarioko 9120 habitata, pagadi azidofilo atlantikoena, Ilex-a eta tarteka taxus-a duten oihanpea duena (Quercion robori-petraeae edo Ilici-Fagenion); gehienez ere 2.579,46 m^2-ko azalera izan dezake eragin-aldeak.

Gainera, aztertutako eremua bat dator haitzuloko saguzarra (Miniopterus schreibersii) dabilen inguruekin. Saguzar hori arriskuan dago EAEn, eta Habitaten Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dago. Ikusirik nolako jarduerak egingo diren eremu horretan, ez dago aurreikusita populazioaren gainean eragin nabarmenik izango duenik.

Proiektu honen helburu den linea elektrikoa «Izarraitz_Aizkorri-Aratz, R9_Urkiola pasabidea» eta bere indargetze-eremua zeharkatzen ditu, EAEko basabide ekologikoak biak ere.

Beraz, proiektua dagoeneko esku hartu den espazio batean garatzen da, non basoak nagusi diren, baina hor nabarmentzekoak dira balio handiko baliabide naturalistiko batzuk.

Proiektuak izan dezakeen eraginaren ezaugarriak.

Proiektuaren izaera eta ezaugarriak ikusirik, zuhaitz-multzoak zuzenean kentzea izango da balizko eraginaren iturri; beraz, habitat horien kontserbatzio-egoeran izango duen eraginak, zatiketak eta urritzeak eta bertako faunan eta landaretzan izango dituen ondorioek ere izango dute eragina. Ondorio horiek eremu mugatu batean izango dira, azpiegitura bateko gehienez ere 20 metroko inguratzaile batean. Azpiegitura horrek segurtasun-pasabidea ere badu, kasu honetan tarte batzuetan handituko dena. Gainera, sarbideak ireki eta egokituko denez landaretza kendu ahal izango da, nahiz eta, proiektuaren dokumentazioaren arabera, sarbideak irekitzeko beharrak unean unekoak baino ez dira izango.

Horrez gain, makinak erabiltzearekin eta alde batetik bestera eramatearekin lotutako eraginak ere egongo dira (hots-kutsadura eta airearen kutsadura, lurra trinkotzea, landaredia suntsitzea eta fauna desagerraraztea, ura eta lurra kutsatzea gerta daitezkeen isuri eta jarioengatik...), baina proiektua txikia denez, ez dira oso nabarmenak izango.

Pentsatzen da ebazpen honetan ezarritako neurri babesleek eta zuzentzaileek ingurumenaren gaineko eragin kaltegarriak gutxituko dituztela, eta beraz, ez da aurreikusten ingurumenean kalte nabarmenik gertatuko denik.

Behin aztertuta proiektu honen ezaugarriak, Proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideak, eta kontsultetan jasotako erantzunak, ondorioztatu da proiektuak ez duela ingurumenean eragin kaltegarri nabarmenik izango, betiere, Ebazpen honetan eta espedientean dauden txostenetan adierazitako neurri babesleak eta zuzentzaileak betetzen badira.

Organo honek ebazpen hau emateko eskumena du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Abadiano-Azpeitia 1 eta Ormaiztegi-Abadiano 1 (Gipuzkoa) lineen arteko Arrasate TA airetiko 132 kV-ko lineako zuhaitzak botatzeko eta zortasunak egokitzeko proiektuaren ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedurari ez ekitea. Proiektua Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. enpresak sustatzen du.

2.– Proiektua egiteko, eta espedienteko txostenetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, honako baldintza hauek hartu beharko dira kontuan:

● Proiektuari buruzko ingurumen-agiri bat prestatu beharko da non babestu eta zuzentzeko neurriak jaso beharko diren, ebazpen honetan ezarritako neurriak. Neurri horiek ez ezik, bidalitako ingurumen-agirian aipatutakoak ere jasoko dira, ingurumena egokiro babestuko dela bermatzeko behar bezain zehazturik daudela. Dokumentu horretako neurri horiek, gainera, obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko dute. Ingurumen-dokumentu hori proiektuari dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren espedienteari erantsiko zaio, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 49. artikuluari jarraiki, eta I.C eranskineko 7. epigrafearekin lotuta.

● Eremuak kalteberak izanez gero, hala nola lehentasunezko eta interes komunitarioko habitatak, baso-masa autoktonoak, zuinketa-fasean eta zuhaitzak botatzen direnean, Botanikan aditua den batek egon beharko du obran bertan, obra-zuzendaritzari edo obra-arduradunari aholkuak emateko.

● Gainera, lanei ekin aurretik, Botanikan aditua den batek xehetasun-azterketa bat egin behar du, eta azterketa horretan Ilex aquifolium, Carex strigosa eta Stachys palustres izeneko espezie mehatxatuen populazioak non diren jasoko da, espezie horiek zaintzeko neurriak zehazte aldera.

● Obrak egin behar diren lekuetara sartzeko, ahal den neurrian, lehendik dauden bideak erabiliko dira, eta halakorik egon ezean, dagoen korridorea. Ez da sarbiderik egin behar aurreko paragrafoan aipatutako eremu kalteberetara sartzeko.

● Sarbide berriak ireki behar badira, eta proiektuak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak burutu diren lursailetan eragina badu, halako eremuetan edozein jarduketa egiteko, aurretiaz lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak aurreikusten duen ingurumen-organoaren baimena beharko du.

● Kalterik egin gabe Gipuzkoako mendiei buruzko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat flora-espezieren babesa agintzen duen urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretuan xedatutakoari, gehienezko garapen begetatiboan linea elektrikoaren segurtasuna bermatzen ez duen distantzia batera gera litezkeen zuhaitz-espezieak bakarrik botako dira, eta egungo zuhaixka-geruza guztia dagoen-dagoenean utzi beharko da. Ahal den guztietan eta gutxienez alderik agerikoenetan eta natura-balio handieneko lekuetan, inausketara joko da.

● Gorago aipatutako eremu kalteberetan zuhaitzak botatzeko, esku-tresna arinak erabiliko dira.

● Mozketetara jotzea guztiz justifikatuta dagoen baso autoktonoetan eragina izanez gero, moztu behar diren zuhaitz-eremuak zuhaixka-espeziekin birlandatu beharko dira. Espezie horiek baso misto atlantiarrekoak dira, hala nola sahatsak eta hurritzak. Eragindako eremuko alde hondatuak leheneratzeko neurri konpentsatzaileak aplikatu beharko dira.

● Lanek ukitutako alde guztiak leheneratu egingo dira. Ingurumena leheneratzeko, besteak beste, landare-estalkiari eutsi diezaioketen espazioak birlandatuko dira.

3.– Proiektuari ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko zaio, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Ebazpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzari, Bergara, Arrasate-Mondragón eta Oñatiko udalei eta proiektuaren sustatzaileari jakinaraziko zaie.

5.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

6.– Ebazpen honek ez dio amaieera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 19a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.